



2025SECG0005
5.bilera: OHIKOA 2025/07/23

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 05/2025
EGUNA: 2025/07/23
HASIERA ORDUA: 17:10
AMAIERA ORDUA: 17:50
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.
Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.
Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba.
Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

Tokiko Gobernu Batzarrari aurkeztu zitzaion 2025eko ekainaren 26an eginiko bileraren akta, onar zezan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zuen 2025eko ekainaren 26an eginiko bileraren akta.

2.- Uztailleko Udalbatzarraren bileran jorratuko diren gaien azterketa.

Alkateak azaldu zituen Osoko Bilkuraren gai zerrendako gaien buruzko informazio orokorra emanez.

1. *Aurreko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.*

2. *Alkatetza dekretuen kontrola.*

Alkateak azaldu zuen Osoko Bilkuraren azken bileraren egunetik emandako dekretuen zerrenda, garrantzitsuenak azpimarratuz:

Ekainaren 23ko 312/2025 Dekretua, «Diziplina-espedientea irekitzea Brigadako langile bati (I.L.A.)» Espedientearen inguruabarrak azaldu zituen (zergatia, Brigadago arduradunek eginiko txostena, eta abar)

Ekainaren 26ko 316/2025 eta 317/2025 Dekretuak, maiatzeko eta ekaineko larrialdietarako diru laguntzei buruzkoak (AES), hurrenez hurren, 4.760,50 eta 2.340,78 euro zenbateko osoa duteneak.

Ekainaren 27ko 318/2025 Dekretua, «Udaltzain baten izendapena, aitaltasun baimena egoeran dagoen udaltzaina ordezkatzeko. J.dH.I.»; 319/2025 Dekretua, «Onartzea udaltzain batek

lanpostuari uko egitea L.S.V.»; eta uztailaren 11ko 338/2025 Dekretua, «Onartzea udaltzain batek lanpostuari uko egitea I.R.H.» Udaltzaingoa azkenaldian egoten ari diren mugimenduek sortzen dituzten egoera eta arazoak azalduz.

Ekainaren 27ko 320/2025 Dekretua, «Izendatzea gazteria eta kirol dinamizatzailerak. I.E.A.»; eta uztailaren 11ko 334/2025 Dekretua, «Onartzea gazteria eta kirol dinamizatzailerak lanpostuari uko egitea. I.E.A.» Izendatutako langilea hasi behar zuen egunaren bezperan aurkeztu zuela uko egiteari idatzia. Horren harira, Antolakuntza Batzordean lanpostuak balorazioaren inguruan hartutako erabakiak azaldu zituen.

Uztailaren 2ko 326/2025 Dekretua, «Praileaitz I kobazuloaren indusketarako/ikerketarako dirulaguntza, 2025 kanpainarako.»

Uztailaren 3ko 327/2025 Dekretua, «Eteia 4 zenbakiko taxi-lizentziaren eraginkortasuna, eta 3 hilabeteko epea ematea lizentziaren eskuratzaileraren datuak jakinarazteko. K.A.G.» Lizentziaren titularrak jakinarazi zuela gaixotasunagatik taxiko lana uzteko beharra zuela. Araudiaren arabera gaixotasuna lizentzia saltzeko ahalbideratzen duen arrazoitzat hartzen da, eta, horrela, hiru hilabeteko eman zitzaion salmenta hori gauzatzeko.

Uztailaren 17ko 343/2025 eta 344/2025 Dekretuak, bi langileei guraso baimena onartzen dietena; eta uztailaren 17ko 345/2025 Dekretua, «Onartzea lanaldiaren %25eko murrizketa langile bati. J.M.M.» Kontu-hartzaileak, arazo familiarrengatik lanaldia murriztea eskatu zuela, eta hemendik aurrera 12:30ak arte egongo dela azaldu zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrek jakinaren gainean geratu zen.

3. *Onartzea, hala badagokio, hiri izaerako lur sailen balio gehikuntzaren gaineko zergaren ordenantza aldaketa: Balio gaikuntza zehazteko urteko portzentajeak.*

Alkateak azaldu zuen Aldundiak hartutako erabakiaren ondorioz zerga hori arautzen duen udal ordenantza aldatzeko beharra sortu duela.

Tokiko Gobernu Batzarrek jakinaren gainean geratu zen.

1. *Onartzea, hala badagokio, IZENPE berezko bitarteko gisa aitortzeko akordioa (EUDEL).*

Alkateak azaldu zuen EUDELe gomendioa egin zuela IZENPE berezko bitarteko gisa aitortzeko. Idazkariak azaldu zuen berezko bitartekoa gisa izendatzeak kontratazio administratiboetan dituen ondorioak.

Tokiko Gobernu Batzarrek jakinaren gainean geratu zen.

2. *Onartzea, hala badagokio, Deba gune tentsionatua izendatzeko prozedurari hasiera ematea.*

Alkateak gaia azaldu zuen Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitara emandako azken txostenaren arabera, Debako udalerriak tentsio gune izateko bete beharreko irizpidetako bat betetzen duela, han zuzen, 1. irizpidea, alokairuaren prezioak KPI + 3 puntu baino igoera izana, azken 5 urteetan. Horiek horrela, gune tentsionatua izendatzeko egin diren izapideak azaldu zituen.

Tokiko Gobernu Batzarrek jakinaren gainean geratu zen.

3. *Onartzea, hala badagokio, euskara ikasteko dirulaguntzen oinarrien aldaketa.*

Alkateak azaldu zuen egingo diren aldaketen inguruak.

Tokiko Gobernu Batzarrek jakinaren gainean geratu zen.

4. *Onartzea, hala badagokio, euskara ikasteko bekak emateko oinarri arautzaileak.*



2025SECG0005
5.bilera: OHIKOA 2025/07/23

Alkateak gaia azaldu zuen beken xedea eta zenbatekoak.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

5. *Onartzea, hala badagokio, margo lehiaketako oinarrien aldaketa.*

Alkateak azaldu zuen aldaketak nahiko sinpleak direla, alde batetik, orain arte Pleno aretoan egiten ziren izen ematea eta erakusketa, Agirre jauregian egingo direla; eta, bestetik, 4. oinarrian, gaia ez zela oso garbi azaltzen, eta gaia hobeto zehazteko beharra atzeman zela. Horrela, orain arte bezala, lanak teknika librean egingo direla, baina, gaiari dagokionez, Debako inguruetaoak izan beharko direla zehaztuko dela.

Bestalde, azaldu zuen margo lehiaketari Javier Cardenas izena jartzeko proposamena egin zela, baina izena ez aldatzea erabaki zela. Izan ere, egia bada Cardenas fundazioa margo lehiaketarako lau sari ematen dituela, abantailak ere lortzen dituela, hala nola, horietako bi sari irabazten duten margoak euren eramaten dituzte, eta beste bi sariak lortzen dituzten margo lanak erosteko lehentasuna dutela, prezioari sariaren zenbateko deskontatuta. Eta, horrez gain, sariaren foiletoetan ere beti agertzen da Cardenas fundazioa.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

6. *Onartzea, hala badagokio, EAJ/PNVk aurkeztutako Palestinari buruzko mozioa.*

Alkateak azaldu zuen EAJ/PNV alderdiak aurkeztutako mozioa zela, eta izan dituen hainbat gorabehera azaldu zituen. Alde batetik, Antolakuntza Batzordean EH Bilduk egin zituen eskaerak, mozioa puntuka bozkatzeko eta ekarpenak aurkezteko; eta, biei ezezkua eman zitzaizela. Eta bestetik, Deba Palestina taldeak mozioaren testua eta Planoan hitza hartzeko aukera izatea eskatu zuela. Testuari dagokionena, Idazkaritzatik erantzun zitzaizela Plenora zihoan gaia izanda, Udalak ezin zuela dokumentaziorik eman Plenoan aztertu baino lehenago. Eskaera aldaerdiari berari luzatu zioten, eta mozioaren testua igorri zitzaizela. Parte hartzeko aukerari buruz, erantzun zitzaizela 5 minutuko tarte bakarra izango dutela euren iritzia azaltzeko. Horrela, mozioa EAJko zinegotzi batek aurkeztuko du, ondoren beste alderdiek izango dute aukera iritzia azaltzeko, eta azkenik, Deba Palestina elkarteari emango zaio hitza bozketa egin aurretik.

Tokiko Gobernu Batzarrak jakinaren gainean geratu zen.

7. *Eskari eta galderak.*

3. Eskari eta galderak.

Obra eta hirigintzako bestelako baimenen inguruko hizketaldi txiki bat egon zen.

Horrenbestez, beste aztergairik ez zegoenez, 17:30ean amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberri Iñarra

Idazkaria



Alazne Txurruka Allika

Alkatea

